

EUSKAL LITERATURAREN GORABEHERAK XX. MENDEAN

IGONE **ETXEBARRIA**

LABAYRU FUNDAZIOKO ZUZENDARI ORDEA

Memoriaren gaiak ikus-
pegi, adar eta gai asko
ditu oratzeko modukoak.
Nik euskal literaturari erreparatuko diot, eta
lehenengo eta behin izenburua bera argi-
tuko dut. “Euskal literaturaren gorabeherak

XX. mendean” jarri diot lan honi izenburua,
nik euskal literatura zelan ikusten dudan
adierazi guran, gora eta behera.

Mende hasierara bagoaz, XIX-XX.
mendeen arteko mugan, figura oinarritzko bi
daude euskal kulturari: Resurrección Maria
Azkue eta Sabino Arana.

Azkue erreferentzia ezinbestekoa
dugu euskal kulturari. Lanen aldetik genero
eta arlo asko landu zituen: musika, literatura,

GURE GAIAK

opera, nobela, poesia. Hizkuntzalaritzan *Morfología Vasca*, *Diccionario vasco-español-francés* aipatu behar dira; herri kulturaren *Cancionero Popular Vasco* eta *Euskalerriren Yakintza*. Horrez gainera, 1897an *Euskalzale* aldizkaria sortu zuen, eta gero *Ibaizabal*. Han idatzi zuten orduko idazle ezagunek, hala nola, Domingo Agirrek, Ebaristo Bustintza *Kirikiñok*, Urruzunok eta Zamarridak. Euskaltzaindia sortu zenean lehenengo presidentea izan zen.

Sabino Arana ere arlo askotan ibilitakoa da, baina jarduera politikoa du nagusi. Hala eta guzti ere literaturan asko idatzi zuen, prosan zein poesian. Idazle moduan ez da hainbeste nabarmendu, baina haren eragina literaturatik harago doa, jarraitzaileen artean ez ezik arerioek ere haren bideetik jotzen dute sarritan. Hurrengo urteetan euskal literaturak hartu zuen indarra berari zor zaio gehien-gehien. Lizardik poema bat dedikatu zion aitortza modura.

Gure mintzo

Arana-Goiri'ren oroiz ta eskarrez.

Nerekin yaio nun abesmiña,
ta aurtandik min ori dut izan samiña...
Kanta nai, nai alper: mintzo
peitu, miñak bear-eztigai gozoa!

Uts bainun oskai guri berexa, (falta nuen, hots-gai berezia)
atsa yaurti arren ezin sor abesa;
Amets-arteko oi u bailitzan,
Otsaren-zakarrez izu-ikara nintzan.

Il-zaarki, bizi dugun gizona! (aspaldian hil arren bizi dugun gizona)
Egunoro berpiz lurpean dagona! (egunero berpiztu behar dugu)
Bez at onets aren izena,
aberriz ta mintzoz gu yantziarena.

Arana euskarazalea eta logikazalea dugu, euskara ikasi egin zuen, berezko-rik ez zeukalako. Baina logikazaletasunak

hizkuntza ez naturala sortzera eroan zuen, garbizaletasun korrante bat eraikiz. Horrek hizkuntza naturaletik aldentzera eraman zuen.

Bien arteko aldeak ikusiz gero, Arana Goirik hizkuntzaren gaineko egitasmoa proiektu osoago baten barruan kokatu zuen, ideologia edo pentsaera orokor eta oso baten barruan. Hala eta guzti ere, ez da pentsatu behar Arana Goirik berak asmatu zuela euskal pentsaera hori; neurri batean, zabal zebiltzan ideia purista batzuk bere diskurtzora eroan baino ez zuen egin, bere egitasmoari jatorri popular hori onartu behar zaio.

XX. mendearen hasieran mugimendu orokorra sortu zen gure gizartean, osoa, gizarteko alderdi guztiak harrapatu zituena. Hemen kokatu behar da Aranaren eragin politikoa eta linguistikoa. Bera gazterik hil zen, baina ondoren ere bide egiten jarraitu zuen, eta giro bizi-bero horretan berez berez txertatu zen; edo hobeto esanda, giro horretarako ongarri bihurtu zen. Euskal Pizkundea deitu den mugimendua noiz hasi zen zehaztea ez dago erraz. Mende aldaketarekin batera kokatu beharko genuke eta gerra zibilera arte gutxienez luzatu. Ikertzaile batzuek, hala ere, gerra ostean jartzen dute hurrengo pauso bat, atzerrian *Euzko-Gogoa* aldizkariaren inguruan batutako artean.

Orduko beste mugarri batzuk:

- Kultura esparruan deigarria da zenbat aldizkari argitaratzen ziren, ikuspegi, erakunde eta pentsaera guztietakoak.

Lehendik zetorren *Euskal-Erria* (1880-1918) baina berriak ere asko sortu ziren.

Julio de Urquijok 1907an *Revista Internacional de los Estudios Vascos* RIEV sortu zuen, euskal gaien gaineko lanei seriotasuna ekarri ziena. Kolaboradoreen artean orduko ikertzailerik handienak daude.

Euskalerriren alde aldizkaria sortu zuten Domingo Agirre, Arturo

Campion, Carmelo Echegaray eta Julio Urquijoren artean, Gregorio Múgica zuzendari zela, ikerketa zabal-kundearekin bateratuta (1911-1931).

Donostian *Euskal-Esnalea* elkarte aipatu behar da, izen bereko aldizkariarekin batera 1910etik aurrera.

Euzkadi egunkariak (1913) Kirikiño, Orixe eta Lauaxeta "Euzkel Atala"ren arduradun izan zituen.

Euzkerea 1929an, *El Día* Gipuzkoan 1930ean, *Euskal Esnalea* (1911), hauek gainera hitzaldiak eta era guztietako gaiak lantzen dituzte euskaraz.

Iparaldean *Gure Herria* argitaratzen da 1921etik aurrera.

- Horrez gainera, kultura, hizkuntza, folklorea eta pentsaera zabaltzeko talde eta elkarte asko sortu ziren: Mendigoxaliak, Poxpolinak, Emakume Abertzale Batza, Euzko Gaztediya... Herri gehienetan zeuden antzerki-taldeak, eta antzezpen asko eta asko egiten ziren.

- Katalunian gertatu zen moduan, abadeen artean ere igartzen da giroaren eragina. Bizkaian, kasurako, Jaungoikozale elkarte (1912) eta izen bereko aldizkaria ditugu horren erakusle, indar handia izan baitzuten. Elkarte horrek berorrek liburuak ere argitaratu zituen Gabirel Manterola, Juan Bautista Eguzkitza eta Ibargutxirenak, eta *Ekin* aldizkaria ere bai gero. *Argia* (1921), *Jesus'en Biotzaren Deya* jesuiten eskutik (1917), *Zeruko Argia* kaputxinoek (1919). Gasteizko Seminarioan ikerketa serioa bideratu zen herri kultura arloan, José Miguel de Barandiaranek gidatuta eta literaturari dagokionean Manuel Lekuonak bideratuta.

- Ordukoak dira irratiko euskarazko lehenengo saioak Gipuzkoan hasita.

- Kulturari dagokionez, Euskal Ikaskuntzen Lehenengo Kongresua (1918) mugarri izan zen. Hortik etorri zen euskara eta euskal kulturarentzat hain garrantzitsuak izan ziren erakundeak sortzea: Eusko Ikaskuntza (1918) eta Euskaltzaindia (1918). Bultzada horrek eragin zuen unibertsitatea sortzeko asmoa ere, nahiz eta gero gauzatu ez.

- Horiek biak eta Euskaltzaleak elkar-tea izan ziren Euskal Pizkundearen zutaberi- sendoenak. Euskaltzaleak elkarteak batzar- rarak, hitzaldiak, jaialdiak eta lehiaketak eratu zituen. Horren babesean eratu zen Euzkel Idazle Batza ere.

Aranaren ostean, gerotxoago, mamitu zen gure euskal literaturaren urrezko aldia. Eta horren barruan Jose Ariztimuño *Aitzol* nabarmendu behar dugu, eragile handia izan baitzen, esparru guztietan izan zuen eragina: *Yakintza* (1933) aldizkaria sortu zuen, Eusko Olerki egunak eratu... Euskara literaturan erabiltzeari garrantzi handia eman zion, poesia ezinbesteko jotzen zuen hizkuntzaren prestigiorako. Asko indartu zuen gure idazleen sorkuntza eta ordukoa dugu, neurri batean behintzat, gure lehenengo euskal literatura. Orixe, Lizardi, Lauaxeta eta beste idazle askoren artean, euskarazko literatura ordura arteko mailarik onenera eraman zuten.

- Hezkuntzari garrantzi handia ematen zioten, herriak aurrera egingo bazuen. Umeak erdal eskoletara joatean, euren hizkuntza baztertu egiten zuten, gutxiagotzat hartu; euskararentzat guztiz zen kaltegarria eskola erdalduna. Bizkaian abertzaleak Foru Aldundira heldu orduan, haien erronkarik handienetako bat ume guztiak eskolatzea izan zen. 1919tik aurrera auzo-eskolen sarea eratu zuten, heziketa ume guztiengana eramateko helburuaz. Horretarako, eskolak auzoetara eraman zituzten. Izan ere, baserri giroan umeak eskulanerako ziren, etxeko lanak egitea zen behinena, horren ostean eskolara. Baserriak sakabanatuta egoteak eskolaraino ibilaldi luzea egitea eskatzen zuen sarritan, eta horrela erraztu egiten zuten ume guztiak eskolatzea, hori baitzen azken helburua.

- Baina irakaskuntzak beste premia batzuk sortu zituen: eskolak euskaraz emateko ez zegoen irakaslerik, irakasleak berri- ren berri trebatu behar izan zituzten eta haientzat eskola-liburuak eta materialak euskaraz sortu.

- Lehenengo ikastolekin etorri ziren lehenengo testu-liburuak: Xabiartxo, Martin

Txilibitu, Txomin ikasle eta beste batzuk. Edizio zoragarriak denak.

- Musika, arkitektura, pintura... disziplina guztietan gertatu zen mugimendua.

Kultur jarduera bizi horretan poesia generoan ikusten da idazle asko, edo bestee-tan baino gehiago behintzat. Hogeigarren mendeko bigarren eta hirugarren hamarkadan hainbat izen gogoratu daitezke. Baina aldaketarik handiena Jose de Ariztimuño *Aitzolek* 1930ean sortu eta gidatutako Euskaltzaleak elkartearen eraginez dator, berri-zalea delako. Elkarte horrek urtero lehiaketa eratzen zuen, eta hara aurkeztutako poesiak liburuetan argitaratu zituzten. Hor ikusiko ditugu hainbat izen: J. de Bedoña *Loramendi*, Eusebio Erkiaga, Gaztelu, Domingo Jakakortajarena, Fabian Loidi, F. Markiegi, Aita Onaindia, Alejandro Tapia-perurena, Jokin Zaitegi, besteak beste.

Izen horiekin batera, nabarmentze-koak dira Esteban Urkiaga *Lauaxeta* alde batetik. Beste batzuen joera herritar edo klasikoagoaren aldean, berak *Bide barriak* (1931) proposatu zituen. Eta berritasun horrekin batera herri-jakintzako hainbat motibo tartekatzen ditu bere poesia kultuan, *Arrats beran* (1935) ikusten denez, Lorcaren *Romancero gitano* eredutzat hartuta. Bien artean lotura pertsonal eta profesionala egoan eta.

Beste aldetik, José María Agirre *Lizardi* aipatu beharko dugu. Mitxelenak dio haren eskuetan sentsazioak, emozioak eta ideiak estetika-gai findua bihurtzen direla. Haren poesia gure literaturaren gorengo mailan dago, edo hobeto esanda, haren poesiak eroan zuen gure literatura gorengo mailara. *Biotz-begietan* (1932) izeneko poema-liburu bakarra dauka. Bertan irudiak, metaforak, koloreak eta sentsazioak adierazteko modua... bereziak dira, gauzen eta bizitzaren iragankortasunak pisu handi hartzen duela. Prosa eta antzerkia ere idatzi zituen, baina gutxi eta ez hain izenduna.

Garai honetako idazlerik ospetsuena, eta gerora eragin handiena edo denboran luzeena eduki zuena Nicolas Ormaetxea *Orixe* izan zen. Bera da beharbada euskal literaturako idazlerik garrantzitsuena. Ez

PIZKUNDEAREN GIRO HORRETAN, ETA BERTSOLARITZAREN IRUDIA ALDATU GURAN, 1934AN JOSE ARIZTIMUÑO AITZOL ETA BESTE INTELEKTUAL BATZUK ELKARTU, ETA EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN LEHEN EDIZIOA EGIN ZUTEN. BERTSOLARITZA "PROFESIONALIZATZEKO" LEHENENGO PAUSOA IZAN ZEN, BERTSOA TABERNATIK KALERA, PLAZARA, FRONTOIRA, ANTZOKIRA, ZINEMARA ETA ELIZARA ATERATZEKO

da modernotasun zalea, baina inork baino hobeto ezagutzen eta erakusten du euskaldunaren izaera, nortasuna, biziera, eta bizi-modu tradizionala. Gizon jakintsua da, baina baita ere eztabaida zalea eta mistikoa. Hizkuntza barru-barrutik ezagutzen du, ardura hartzen du arina eta ugaria izan dadin bere idatzietan, herri hizkera erabiltzen du baina balio berriekin. Bere ekarpenik handiena, Mitxelenarentzat, itxurazko erraztasuna da, hizkuntzak berben ordenan onartzen duen askatasuna aprobetxatuz adierazkortasuna lortzeko.

Euskaldunak poema idatzi zuen Gerra aurretik, nahiz eta 1950era arte argitaratu ez. Euskal herri xumearen erretratu zabal, zehatza, intenporala da, urtean zeharreko beharrak, jaiak, aldian aldiko bizipenen berri ematen duena. Pertsonaiak adierazi gura duen herri kolektiboaren gerizpean geratzen dira.

Prosan erlijio gaia darabilten idazle batzuk aitagarriak dira: Juan Bautista Eguzkiza, Policarpo Iraizoz, R. Olabide eta haren jarraitzaile edo ikaslea Jokin Zaitegi.

Eta nobelan, beste saio batzuk gorabehera, Domingo Agirreren *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912), hau batez ere, hartzen dira gure lehenengo nobelatzat. Haren ondoan aipatuko dugu José Manuel Etxeita, nobela biren egilea: *Josetxo* (1909) eta *Jaioterri maitia* (1910).

Gogoan hartzekoak dira literatura euskaratzeko ahaleginak ere.

Eta egin dezagun tartetxo bat emakumeentzat, presentzia handirik ez badute ere, euren laguntasunik gabe ezin izango zen hainbeste lorpen egin, ezkutuko sostengua izan ziren.

“Emakume Abertzale Batzako” emakumeak eraginak izan ziren, mitinetan, hitzaldietan, umeeekin eta gizonekin ekintzetan bizi-biziak. Aipatzekoa izango litzateke emakumearen papera halakoetan, tradizioaren, hizkuntzaren eta ohitura onen transmisore moduan, ama-umeen katean batez ere. Sorne Unzueta *Utarsus* ezizenaz sinatzen zuenak “Itxartu euzko alabea, itxartu emakumea!” idatzi zuen poema bat, emakumeei zuzenduta ekintzarako deia eginez.

Abertzaleak ez ezik, sozialistak ere elkartu ziren, Bizkaian batez ere. Alderdi politikoak finkatzeak hauteskundeetan eragin handia izan zuen. Horri gehitzen badiogu 1931an emakumeei boto-eskubidea onartu zitzaizela, ekintza politikoa asko areagotu zen; boto asko zeuden jokoan eta andreak bete-betean sartu ziren jarduera horretan. Bai abertzaleen artean bai sozialisten artean batzuk oso ezagun bihurtu ziren.

Baina zelako Euskal Herria agertzen da literatura horretan?

XX. mendearen hasierako hiru hamarkadetan langileen mugimenduak ugariak izan ziren, sozialisten eta sindikatuen jarduerak ere bai, industrializazio gordin baten sasoia dugu. Holakorik ote dago gure idazlanetan? Ba ez. Domingo Agirreren *Kresala* eta *Garoa* izeneko nobeletan, agiri-agirian ikusiko dugu euskaldunak ez daukala hala-koekin zerikusirik. Protestak egiten dituzten beharginak, Eibarren kasurako, ‘euskaldun fededun’ eredutik urrun daude, ez dira euskaldunentzat erreferentzia ez eredu, Euskadi bukoliko garbi bat baino ez da ageri: familia, etxeko eta erlijioaren baloreak, baserritarrak eta arrantzaleak...

Hala eta guzti ere, batzuentzat artifiziala izan arren, garai ederra izan zen euskal literaturarentzat. Kantitatean eta kalitatean ugaria, eta etorkizunerako esperantza eta ilusioa eragin zuena.

Eta bertsolaritzaz zer esan?

XIX. mendearen bigarren erdian Antoine d’Abbadiek antolatutako Lore Jokoetan; hau da, ahozko literaturan oinarritutako lehiaketetan, bertsolaritzak bazeukan lekua. Baina horiek lantzean behingoak ziren, eta gainerakoan, bertsolaritzaren ohiko bizilekua tabernak, sagardotegiak eta ostatuak ziren. Pizkunde garaian, denak bat ez bazetozen ere, batzuentzat bertsolaritza euskal kulturaren esentzia zen, tabernatik atera eta plazara eroan beharrekoa. Aitzol izan zen joera edo pentsaera horren bultzatzailerik handienetakoa.

Beste alde batetik Manuel Lekuona be gogoratu behar dugu. Haren obra *Literatura oral vasca* (1936) mugarri izan zen bertsolaritza ahozko literaturako generoen artean sartzeko. Jose Manuel Lujanbio *Txirrita* eta Kepa Enbeita *Urretxindorra* izen gogoangarriak ditugu XX. mendearen lehenengo herenean. Gero etorriko dira Basarri eta beste asko.

Pizkundearen giro horretan, eta bertsolaritzaren irudia aldatu guran, 1934an Jose Ariztimuño *Aitzol* eta beste intelektual batzuk elkartu, eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren lehen edizioa egin zuten. Bertsolaritza “profesionalizatze” lehenengo pausoa izan zen, bertsoa tabernatik kalera,

plazara, frontoira, antzokira, zinemara eta elizara ateratzeko. 1935ean egin zen lehenengo txapelketa eta 1936an bigarrena, Euskalzaileak elkarteak eratuta, eta Euzko Gaztediko kideek hartu zuten ardura bertsoak abestu ahala jasotzeko, gero argitaratzeko.

Lehiaketaren dinamikak berrikuntza asko ekarri zituen:

- Gai-jartzailea: ordura arteko gai errealistak fikziozko gai izatera pasatu ziren. Fikzio hurbila, jakina. Orduko bertsolarien ustez, gai-jartzaile eta emaileak bertsolarien artean aukeratu behar ziren, gaiak bertsoan eman behar baitziren, esaterako. Gai-jartzaileen aitzindaria *Aitzol* bera izan zen.

- Antolakuntza: erakunde edo talderen batek txapelketaren antolakuntzaren kargu egin behar zuen. 1935eko txapelketara eremu zehatz bateko bertsolariak baino deitu ez bazituzten ere, ondorengo txapelketetan oso garrantzitsua izango da talde jakin batzuen laguntza.

- Epailletza: bertso-guduetako epailleen lana zaila izaten baldin bazen (hau da, bi kideren arteko bat hautatzea garaile), hainbat kide bilduko dituen txapelketak sailkapena egiteko sistemak garatu beharko ditu pixkanaka.

Bestalde, aipatu beharra dago txapelketako saioak orduko sagardotegi eta tabernetako saio amaiezinak laburtzea suposatzen zuela, antolatu eta egituratzeaz gain. Aipatutakoekin batera, Uztapide, Balendin Enbeita eta Lazkao Txiki bertsolariak azpimarra genitzake aro berri honetan.

1935eko txapelketa Bertsolaritzaren "profesionalizazioak" irabazi zuen Basarriekin batera eta erronkako bertsolaritzak, Txirritak ordezkatzen zuenak, bosgarren postu soil bat onartu behar izan zuen. Urte betera, aldiz, Txirritak Euskal Herriko txapela jantzi zuen, epaileetako batek Uztapidek argi eta garbi merezi zuela azaldu zion arren Manuel Olaizolari; Txirrita hiltzear zegoen baina. 1937an txapelketarik izan balitz berak irabaziko zukeen, baldin eta Basarrik berriz gai-jartzaile lana egin izan balu eta Francok bertsolaritza ilunpera bultzatu izan ez balu. Zoritxarrez, Gerra Zibila piztu zen Txirrita hil eta gutxira.

GERRA OSTEA

Gerra zibilak eragin eta ondorio oso txarrak ekarri zizkion gure literaturari. Apurren bat berdindu zen atzerrian egindako lanaren bitartez, batez ere Argentinan eta Guatemalan.

Gerra aurretik euskal literaturak ordura arteko mailarik gorena hartu bazuen, gerrak

**APURKETA HANDIA
DAGO BELAUNALDIEN
ARTEAN, ETA LITERATURA
BERRIAREN ADIERAZLEAK
BI IZANGO DIRA BATEZ
ERE: GABRIEL ARESTI
POESIAN ETA TXILLARDEGI
NOBELAN. IDAZLE BOK
KRITIKA GOGORRAK
HARTU ZITUZTEN
AURREKO TRADIZIOKO
JARRAITZAILEEN ALDETIK,
EZ ZEN ERRAZA IZAN BIDE
BERRIAK ZABALTZEA**

historiako unerik larrienera eroan zuen. Izan ere, euskal literaturaren euskarria zen talde politikoak gerra galdu egin zuen, eta galtze horrek oinarrian zegoen kultur mugimendua behera etortzea ekarri zuen. Gure kasuan, puntarengo idazleak hil egin ziren (Lizardi 1933), hil egin zituzten (Lauaxeta 1937, Aitzol eragilea), eta beste batzuek erbesteratu behar izan zuten.

Geratu zirenak gutxi ziren, eta gainera, gerraosteko egoera latz hartan ez zegoen literaturarako lekurik, ez gogoz ez ahalbidez. Gerra aurretik zetorren belaunaldiak orduko

egoerara itzultzea zeukan amets; era batera edo bestera iragana zeukaten helburu, eta hori ez zen bete harik eta gerra bizi izan ez zuen belaunaldia gizartean hasi arte. Diktadura luzeegia izan zen, une batzuetan egon zen egoera politikoa aldatzeko itxaropena, baina denbora aurrera joan eta lehengoan jarraitzean, esperantza hori behera etorri zen. Horregatik, hurrengo belaunaldiak beste asmo batzuk hartu eta, itxaroten gertzeko gogorik barik, aurrera egiteko indarra hartu zuen, eta gainera, aurrekoarekin apurtuta, ustez behintzat.

Hala eta guzti ere, bazegoen literatura bat, apala, iragana imitatzen ahaleginduko zena. Gerra galdutakoon literaturak, gogoaz ez galtzeko adorearekin, *kontinuitatea* ekarri zuen, hori baitzen une hartan gehien behar zena. Literatura apala, garaiz kanpokoa zen, baina *bazen*, eta hori erakustea balio handikoa izan zen, sasoi hobeak etorri arte.

Erbestean argitaratu zen lehenengo liburua 1946koa da, Mexikon argitaratu zen *Urrundik Bake oroi* izenarekin.

Nobeletan hauek aipatu behar dira: Agustín Anabitarteren *Usauri, Donostia* eta *Poli* (1958); Juan Antonio Irazustak, euskal emigrazioari buruzko nobela bi idatzi zituen: lehenengo emigrazio ekonomikoari buruzkoa *Joanixio* (1946), eta bigarrena, Europako gorabeherak eragindakoaz *Bizia garratza da* (1950). José Eizagirrek Ameriketara argitaratu zuen *Ekaizpean* (1948).

Jon Etxaidek Etxahunen bizitzari buruz nobela egin zuen, *Joanak joan* (1955), Jose Antonio Loidik nobela poliziakoa, arrakasta handikoa *Hamabost egun Urgainen* (1955). Jose Luis Alvarez Emparanza *Txillardegik Leturia'ren egunkari ezkutua* (1957) eta *Peru Leartza'ko* (1960). Eusebio Erkiagak *Arranegi* (1958).

Aldizkariak ere badaude: *Euzko-Gogoaz*, Jokin Zaitetik zuzendua, lehenengo Guatemala eta gero Baionan argitaratu zena; Donostian *Egan*, 1953ra arte elebiduna, Antonio Arruek, Angel Irigarayk eta Luis Mitxelena zuzendua; *Jakin* ateratzen da Arantzazun, batez ere teologia, filosofia, soziologia eta arteari buruz; *Olerki* poesia-koadernoa dira, Aita Santi Onaindiak editatuak.

Badira beste batzuk ere, *Zeruko Argia* kaputxinoena, eta *Karmel* karmeldarrek egiten dutena. Horrez gainera, Baionan Xarritonek bultzatuta *Gazte* izenekoa sortu zen, eta *Anaitasuna* Imanol Berriatuak bideratutakoa.

**BAT-BATEKO
BERTSOLARITZA
ALDARRIKAPEN
ADIERAZPIDE GISA
ERABILIKO DUTE.
ABESTIAK ETA
BERTSOGINTZA
KULTURAREN
DEFENTSARAKO TRESNA
DIRA HERRIARENTZAT,
ETA BAT-BATEKO
JARDUNA GIZARTEAN
ERROTZEN DA
ASTIRO-ASTIRO**

Argitalpen guztiotan oso presente dago hizkuntza-ereduaren gaineko kezka. Askok uste dute literatur hizkuntza tradiziozalea eta kontserbadorea izan behar dela, idazle zaharren ereduaren haritik.

Apurka-apurka argitalpenak egiten dira. Idazle batzuk gerra aurretik, 1931-36 bitartean zabalduak joeraren jarraitzaileak dira; hala nola, Salbatore Mitxelena, *Arantzazu* poemaren egilea (1949), Fernando Artola *Bordari*, Valentín Aurre-Appraiz, Jaime Kerexeta (*Orbelak* 1958, *Bitargi* 1959). Horiek denak Lauaxetak zabalduak bidearen jarraitzaileak dira. Poesian, tradiziozalea da Xabier d'iharce *Iratzeder* ere, beneditarra eta erlijio kutsukoa, baina gogoan hartzekoa. Nemesio Etxaniz saiozile zorrotza dugu.

Gehien baten poesia egin zen, argitaratzeko errazago zelako, liburu bat osoa baino, eta Lizardik gerra aurrean itxitako lorratza indartsua zelako. Baina tonua goibela da, izenburuak ikustea baino ez dago: Nemesio Etxanizen “Ama”, “Iturri agortu”, “Gabon aize”; Jokin Zaitegirenak “Baserriko illunabarra”, “Egaztiaren eriotza”...

Nobelatan Juan Antonio Irazustarenak aipatu daitezke: *Joñixio* (1950) eta *Bizia garrantza da* (1950).

Idazle guztiok dilema bat daukate aurrean: ze hizkuntza eredu erabili? Herrira jo hizkuntza jatorra, denek ulertzeko modukoa erabiltzeko eta irakurle guztiengana heldu ahal izateko ala hizkuntza landuagoa erabili jakinda horrela irakurgaiak ez zirela hain popularrak izango eta irakurleak era bateko jakintsuak baino ez zirela izango. Bakoitzak ondoen ikusten zuen irtenbidea hartu zuen, baina ez zen eredu jakinik sortu, eta, edozein kasutan, aurretik zetorren moralari eutsi zioten.

Kontinuitatea ziurtatu zuten idazleonean, gerra bizi izan ez zuten idazleak etorri ziren, aurreko giroarekin apurto guran. Horri 1964ko belaunaldia esan izan zaio.

Ahots berrien artean aipatu daitezke Jon Mirande, paristar zuberotarra, ortodoxiatik guztiz apartekoa; Gabriel Aresti, mendebaldeko idazleen lirika ondo eza gutzen duena baina estilo oso pertsonala daukana, egiten ditu irudi zoragarriak, ironia bizia, metrika sortuberriak, bertsolarien erritmoak... Bitoriano Gandiaga espiritu berri baten adierazle dugu, hizkuntza indartsua eta delikatua darabil, mistizismoz betea, paisaiarekin bat eginda; Jose Luis Alvarez *Txillardegiren* nobelak aldendu egiten dira Lizardiren unibertsoetik, pertsonaiak egunero errutinatik aldendu eta bizitza beteagoaren bila dabilta.

Belaunaldi honetako irakurleak ikasiak ziren, ikasketak asko zabaldu zirelako. Eta euskaraz zeuzkaten irakurgaiak ez zuten asetzen euren kultur egarria. Ordura arteko literaturako gizartea, egoerak, testuinguruak ez zetozen bat gizartean pil-pilean zegoen giroarekin, industrializazioak ekarritako gizartearekin. Apurketa handia dago

belaunaldien artean, eta literatura berriaren adierazleak bi izango dira batez ere: Gabriel Aresti poesian eta Txillardegi nobelan.

Arestiren *Harri eta Herri* poesia soziala da, eta bere inguruko gizarteko pertsonak eta egoerak ekartzen ditu literaturara, orduko garaiko literaturaren parean jartzen du gurea ere, eta laizismotik aldentuta, gainera. Gerra aurreko idazleek aurreko tradizioarekin egindako etenaren gainetik, herri literaturara hurreratzea ekarri zuen, Lizardiren eraginpetik harago.

Edozein kasutan, Aresti bat ez da sortzen besterik barik, gogoan hartu behar da aldizkari xumeetan fruitu honetarako hazia lantzen hasia zela urte batzuk lehenagotik. Haren atzetik etorriko dira Bitoriano Gandiaga, Xabier Lete eta beste asko.

Nobelan Txillardegiren lan bi aipatu behar dira: *Peru Leartzako* eta *Leturiaren egunkari ezkutua*. Nobela biotako protagonistek barruko gogoetak eta gorabeherak darabiltzate, ez daude testuinguru euskaldun bukolikoan, beste era bateko argumetuak eratzen dituzte. Horrek ere atzetik ekarri zituen Ramon Saizarbitoria eta hurrengo belaunaldiko idazleak.

Idazle biok kritika gogorrek hartu zituzten aurreko tradizioko jarraitzaileen aldetik, ez zen erraza izan bide berriak zabaltzea.

Baina 64ko belaunaldi honek, gerraurrekoaren aldean, badauka ezberdintasun bat, ez da hain monolitikoa. Euskal Pizkundeko idazleek eredu literario, ideologiko bera erabili zuten, denak zihoazen soka berean. 64koen artean, aldekoak eta kontrakoak daude, eta euren artean ere estilo ezberdinetakoak.

Bertsolaritzaz ere antzera esan beharko genuke.

1940-1950 urte bitartean zentsura nagusi izan zen Francoren diktadurapean. Zigor eta isunekiko beldurra zabaldu zen: gai politikorik ezin zen aipatu. Bertsolaritzak, beraz, ezin zuen bere izaera aldarrikapen eta kronika egilea gauzatu. Itzalpean, klandestinitatean, Basarri eta Uztapide bikoitek Euskal Herriko plaza askotan jardungo du, zailtasun handiz beti ere.

Hemen aipatu beharrekoa da Alfontso Irigoienen bultzadaz eta Euskaltzaindiaren babesaz, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa bi egin zirela 1948 eta 1949an. Biak Balendin Enbeitak irabazi zituan, Keparen semeak. Bigarrenean batez ere, izen gerora oso ezagunak agertuko dira: Basilio Pujana, Deunoro Sardui, Jon Azpillaga, Jon Lopategi, Jon Mugartegi.

Literaturan esan dugun moduan, bertsolaritzan ere erresistentzia aldia da. 1960an eman zieten jarraipena gerra aurretik hasitako Txapelketei, Euskaltzaindiaren ardurapean. Txapelketei esker, trantsizioaldi horretan bertsolaritza bizirik mantendu zuten bertsolarien izenak gorde izan dira: Uztapide-Basarri bikotea, Xalbador-Mattin, Jose Lizaso, Jose Agirre, Mugartegi eta Azpillaga, Lazkao Txiki, Lopategi, Gorrotxategi... Badira txapelketetan nekez parte hartzen zutenak ere, Manuel Lasarte kasurako.

1960: Basarri, 1962-65-67: hiruretan Uztapide txapeldun.

1980-82: Amuriza, Euskaltzaindiak antotatuta.

1986: Sebastian Lizaso, Euskal Herriko Bertsosale Elkarateak eratuta.

Bat-bateko bertsolaritza aldarrikapen adierazpide gisa erabiliko dute. Abestiak eta bertsogintza kulturaren defentsarako tresna dira herriarentzat, eta bat-bateko jarduna gizartean errotzen da astiro-astiro.

Diktaduraren bukaerak indarrez ireki zuen kultura egarria herrian. Euskal Herriko Txapelketa (lehenago Campeonato Mundial de Versolaris deitua) 1980an berrantolatu zen eta Xabier Amurizak bi alditan irabazi zuen, 1980an eta 1982an. Laurogeiko hamarkadako txapelketak, ordea, oso bestelakoak ziren hirurogeiko hamarkadakoekin alderatuta. Ordura arteko bertsozalego homogeneoa gero eta heterogeneoagoa izango da, bertsolaritzak bere jardura-eremua gero eta gehiago zabaldu beharko duelarik.

1977. urtetik aurrera, jaialdiek gora egin zuten. Bertsolari eskoletako lehen belaunaldiak plazaratzen dira: Sarasua, Euzkitze... Amurizaren ekarpena zeharo onuragarria da hortaz. Bertsoak telebista, irrati eta egunkarietara salto egiten du eta bertsozaleriak inoizko kopururik handienak lortzen ditu. Bertsoa publizitatea egiteko tresna izango da ere. Mendez mendez egin bezala, bertsoak bete-betean asmatzen du nola moldatu garai berrira: bertso-tramak, bertso musikatua... Gaiak eta bertsolariak sofistikatu egiten dira: 1997ko txapelketan parte hartu zuten 47 bertsolarietako 26 unibertsitateko ikasleak ziren.